
Bizkaia
nagusi intelligence center



Bizi-luzetasunaren eta Zainketen Behatokia

# JARDUNALDIABZB

## Adina, etiketarik gabe

Adinkeria erakundeetan, tratuan eta norberaren begiradan

**2026ko azaroaren 12a · 09:00-14:00**

**NAGUSI INTELLIGENCE CENTER (NIC)**

Bizi-luzetasunaren eta Zainketen Behatokiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizi-luzetasunaren eta Erronka Demografikoaren Zuzendaritza Nagusiak SIISen laguntza teknikoarekin sustatu duenak, adinkeriari buruzko jardunaldi bat antolatu du; hau da, adinagatiko estereotipoei, aurreiritziei eta diskriminazioari buruzkoa. Jardunaldian Behatokiaren monografia aurkeztuko da. Haren arabera, Bizkaiko 50 urte eta gehiagoko bost pertsonatik bat (100.000 pertsona baino gehiago) diskriminatuta sentitu da adinagatik.

Adinkeriak arauetan eta zerbitzuetan eragiten du, baita eguneroko tratuan eta norberak zahartzeari buruz duen begiradan ere. Eta hiru maila horiek elkarren artean indartzen dira. Jardunaldiak eskainiko ditu esparru-hitzaldia, Bizkaiko datuak, adituen arteko elkarrizketa eta tailer praktiko bat, adinkeria detektatzen ikasteko eta norberaren ingurunerako neurriak proposatzeko.

Hainbat esparrutako profesionalei eta herritar guztiei irekita dago.

# EGITARAUA

## 2026ko azaroaren 12a

**09:00-09:15** **ONGIETORRIA**
NAIARA ARTAZA, NIC

**09:15-09:40** **Hitzaldi nagusia. Zer da adinkeria: kontzeptua, dimentsioak, mailak eta ondorio nagusiak.**
VÂNIA DE LA FUENTE-NÚÑEZ (ONLINE)

**09:40-10:10** **Bizkaia zifratan. Bizi-luzetasunaren eta Zainketen Behatokiaren monografiaren aurkezpena: Bizkaiko egoera eta datu nagusiak.**
BIZI-LUZETASUNAREN ETA ZAINKETEN BEHATOKIA · SIIS

**10:10-10:40** KAFE-ATSEDENALDIA

**10:40-11:30** **Adituen arteko solasaldia. Nola gertatzen den adinkeria maila bakoitzean eta zer egin daitekeen. Txanda gurutzatua eta publikoaren galderak.**

- **Adinkeria instituzionala: nola diskrimina dezakeen arau, politika edo zerbitzu batek adinagatik, nahi gabe.**
  ALBERTO INFANTE, HELPAGE ESPAINIA
- **Pertsonen arteko adinkeria: nola adierazten den tratuan eta eguneroko hizkeran.**
  VÍCTOR CARRAMIÑANA, BBK FUNDAZIOA
- **Norberak bere buruari ezarritako adinkeria: nola barneratzen diren estereotipoak eta zer ondorio dituzten.**
  ELENA DEL BARRIO, MATIA INSTITUTUA

MODERATZAILEA: MARIAN GARRIKABEITIA, SILVER FILM FESTIVAL

**11:30-12:00** **Dinamika: adinkeria ala ez? Eguneroko egoerak baloratzea koloretako txartelekin.**
PUBLIKOA ETA MAHAIKO HIZLARIAK · DINAMIZATZAILEA: MARIAN GARRIKABEITIA

## 2026ko azaroaren 12a

**12:00-13:20** **Tailerra: adinkeria norberaren ingurunean identifikatzea. Kasuen azterketa profil desberdinak nahasten dituzten mahaietan, eta neurri bat proposatzea mahai bakoitzeko.**
DINAMIZATZAILEA: SIIS

**13:20-13:50** **Zer daramagu? Adinkeriari aurre egiteko estrategiak eta itxiera. Mahaien proposamenak, MOEren arabera ebidentzia gehien duten estrategiak eta Adinkeriari buruzko Mundu Txostenaren gomendioak.**
SIIS ETA MAHAIETAKO BOZERAMAILEAK

### IZEN-EMATEA

**Formatua:** aurrez aurrekoa.
**Plazak:** gehienez 60 pertsona.
**Publikoa:** hainbat esparrutako profesionalak eta herritarrak oro har.
**Kostua:** doakoa.
**Izena emateko azken eguna:** 2026ko azaroaren 11.
**Antolatzailea:** Bizi-luzetasunaren eta Zainketen Behatokia · Bizi-luzetasunaren eta Erronka Demografikoaren Zuzendaritza Nagusia, Gizarte Ekintza Saila, Bizkaiko Foru Aldundia – NIC. Laguntza teknikoa: SIIS · Eguía-Careaga Fundazioa.

### HIZKUNTZA

Jardunaldia euskaraz eta gaztelaniaz egingo da. Tailerra gaztelaniaz izango da.



# HIZLARIAK



## Vânia de la Fuente-Núñez

*Vânia de la Fuente Advisoryren sortzailea eta aholkulari nagusia*

Medikua, antropologoa eta nazioarteko aditua zahartze osasungarrian eta adinkerian. 2023az geroztik aholkularitza independente bat zuzentzen du, eta hartatik gobernuei, nazioarteko erakundeei eta erakunde publiko zein pribatuei aholkatzen die adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta adinkeriari aurre egiteko politiketan eta ekimenetan. Ia hamarkada batez Munduko Osasun Erakundean (MOE) lan egin zuen, eta bertan Adinkeriaren aurkako Mundu Kanpaina zuzendu zuen. Nazio Batuen Adinkeriari buruzko Mundu Txostenaren egilekide nagusia da, eta *La trampa de la edad* liburuaren egilea.



## Alberto Infante

*HelpAge Espainiako presidenteordea*

Medikuntzan eta Kirurgian doktorea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Enpresen Administrazioko eta Sistemen Analisiko masterra Industria Antolamenduko Eskolan. Mediku orokorra, Medikuntza Nuklearreko espezialista eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaile medikoa, Osasun Sistema Nazionalean eta Osasun Ministerioan erantzukizuneko hainbat kargu izan ditu. OEP/MOEko funtzionarioa izan zen zortzi urtez, eta Nazioarteko Osasuneko irakaslea Osasun Eskola Nazionalean (Carlos III.a Osasun Institutua) 2010 eta 2015 artean.



## Víctor Carramiñana

*Bizi-luzetasun Berriaren eta Belaunaldien arteko Harremanen arduraduna, BBK Fundazioa*

BBK Fundazioan zahartze aktiboa, parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko ekimenak bultzatzen ditu. Industria Diseinuko eta Produktuaren Garapeneko Ingeniaritzan graduatua da, eta Estrategian, Ekintzailetzan eta Proiektuen Kudeaketan masterrak egin ditu Deustuko Unibertsitatean eta ELISAVA – Vic-eko Unibertsitatean. 2021ean sartu zen BBKn, BBK Kunako proiektu-teknikari gisa, eta 2030 Agendaren zabalkundeari lotutako proiektuak koordinatu zituen.



## Elena del Barrio

*Gizarte Politika eta Testuinguruen zuzendaria eta ikertzailea. Matia Institutua*

Adinekoen zahartze aktiboari, bizi-baldintzei eta denboraren erabilerari buruzko ikerketak egiten ditu, baita adinekoekin atseginak diren hiri eta komunitateei buruzkoak ere. 2012tik Euskadi Lagunkoia proiektua koordinatzen du, eta 2012tik 2020ra Geriatria eta Gerontologiako Espainiako Elkarteko Irudi eta Zahartze Lantaldea koordinatu zuen.




## Marian Garrikabeitia

*Silver Film Festivaleko zuzendaria*

Zuzendaria, ikus-entzunezkoen errealizatzailea eta kulturan espezializatutako kazetaria, irratian eta telebistan ibilbide luzea duena. 2023an Silver Film Festival sortu zuen, bizitzaren bigarren erdiari eskainitako zinema eta pentsamendu jaialdia, eta harrezkero zuzentzen du. Edizio bakoitzak gai bat du ardatz: komunikabideen begirada (2023), adinkeria eta bizi-luzetasun berria (2024), belaunaldien artekotasuna (2025) eta adinik gabeko maitasuna eta sexua (2026). Dagoeneko 6.000 pertsona baino gehiago igaro dira jaialditik. Zuzentzeaz gain, jaialdia aurkezten du eta haren mahai-inguru eta topaketa askotan moderatzaile aritzen da.

Bizkaia
nagusi intelligence center




**Nagusi Intelligence Center (NIC)**
Calle Aita Gotzon 37
**Planta 4ª**
48610 Urduliz
BIZKAIA